	OÑATIKO UDALA	
	Erregistro Data	
	2016 IRA 23	
SARRERA	IRTEERA	
2226		

Frankismoaren Krimenen Aurkako Kereilaren Euskal Plataformaren izenean, egungo legediari jarraituz EH Bilduk eta EAJk Oñatiko Udalaren Osoko Bilkurari proposatzen dio ondorengo Mozioaren onarpena.

MOZIOA

1.- Oñatiko Udalak 1931.ean bide onez burututako Errepublika eta Gobernu Espainol, Katalan, eta Euskaldunaren aurka 1936.eko Uztailean Francok antolatutako altxamendu militar-faxista salatzen du.

2.- Oñatiko Udalak gerora ezarritako diktadura erregimena salatzen du, berrogei urteetan zehar eragindako triskantza odoltsuegatik justizia soziala aldarrikatzen zutenen aurka eta baita Katalunia, Galizia eta Euskal Herriaren eskubide nazionalak aldarrikatzen zutenen aurka.

3.- Oñatiko Udalak kolpe militar haren alde eta gerora bere gobernuen alde egin zuten industria, nekazal eta finantza oligarkiak eta Espiniar Elizaren agintariak salatzen ditu.

4.- Oñatiko Udalak altxamendu militarragatik, erregimen frankistagatik eta Estatu terrorismoagatik errepresaliatuak izan zirenen eskubide eta eskaeren alde egiten du eta administrazio publikoei, hau da, instituzio politiko eta juridikoei, eskatzen die pertsona kaltetu horien eskubideak bermatzeko ere, erregimen haren EGIA plazaratzen, bere oinordekoak egiten ari diren historiaren errelato faltsua salatuaz; JUZTIZIA aldarrikatzen, egungo inpunitatea saihestuz eta frankisten erantzukizuna exijituz; milaka eta milaka biktimentzat ERREPARAZIO duin eta diskriminazio gabea eskatzen; eta, azkenik, gizarteak behar dituen aldaketa sozio-ekonomikoak, juridikoak eta instituzionalak eragiten, ERREPIKA-EZINAREN BERMEA ezartzeko.

5.- Ildo honetan, Oñatiko Udalak bere laguntza eta atxikimendua ematen dio Argentinako Errepublikan, Buenos Aireseko 1 Epaitegian, 4591/10 Kereilari, zein Maria Servini de Cubria Epaileak daraman genozidioaren eta gizateriaren aurkako frankismoaren krimenegatik.

6.- Oñatiko Udalak, 2014.eko Martxoaren 20an Eusko Jaurlaritzak aho batez onartutako erabakia kontuan izanik, bere Udalean frankismoaren sinbologiaren edozein aztarna kentzeko ardura bereganatzen du.

7.- Halaber, Oñatiko Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu espainola eta Estatuko epai-estamentuak premiatzen ditu Jurisdikzio Unibertsalaren ildotik Giza Eskubideen arloan datozen betebeharrak prestutasunez bete ditzan eta argentinar epailetzari laguntza osoa eman diezaion hark eskatutako gai guztietan.

8.- Oñatiko Udalak hiritar orori eskatzen dio Kerëila honen alde egin dezan, bai kereilatzaile gisa errepresiorik sufritu duenak, berak edo bere familiakoren batek; edo baita diktaduraren aurka bere salaketa eginaz eta atxikimendu pertsonala sinatuaz.


9.- Oñatiko Udalak, justiziak udalerrian diktadura frankistak eragindako gizateriaren kontrako krimenetatik erator daitezkeen erantzukizun penal eta legozkiokoen beste edozein erantzukizun argitu ditzala eskatzen du.

10.- Oñatiko Udalak egokituko diren bitartekoak erraztuko ditu prozedura penalera erantsia izan dadin, udal artxiboetan dagoen dokumentazio, testigantza eta proba oro, frankismoaren zapalkuntza guztien zentsu ahalik eta osatuena landu dadin.

11.- Gure Udalerrian frankismoaren aurka kereilak edo salaketak jartzea nahi dituzten bizilagun biktima edo biktimen familiarteko guztiei laguntza materiala eta juridikoa eskaini. Horretarako, Udalak bulego berezi bat sortuko du diktaduraren biktimei arreta eta laguntza eskaintzeko.

Oñatiko Udalaren Osoko Bilkurak deklaratzeko duena 2016.eko irailaren 27a.

Euskal Herria, 2016.eko Irailaren 21a

A large, stylized handwritten signature in black ink, consisting of several overlapping loops and a long horizontal stroke extending to the right.